		1	Zuzenak ez diren datuak sartzeko probabilitatea murrizteko ekintza kopurua <i>Nº acciones para reducir la probabilidad de introducir datos erróneos</i>	10	10	12
		2	Sailaren datuak ez edukitzeagatik galdutako orduak. <i>Horas perdidas por no disponibilidad de datos del departamento.</i>			
	12		INSTALAZIOAK ADMINISTRATZEA. ADMINISTRAR INSTALACIONES			
		1	Instalazioen segurtasun fisikoko gorabehera kp.(lapurreta,kaltea) <i>nº incidentes de seguridad física de instalaciones (robo, daño)</i>			1
	13		ERAGIKETAK ADMINISTRATZEA. ADMINISTRAR OPERACIONES			
		1	Prozesatu behar izan diren batch prozesuen kop. <i>Nºde procesos batch que han debido de ser reprocesados</i>			1

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapena 08. <i>Promoción Económica</i>	06. Jakintzaren Kudeaketa 06. <i>Gestión del Conocimiento</i>	320.203 Jakintzaren Kudeaketa 320.203 <i>Gestión del conocimiento</i>

2011an zehar Enplegu eta kudeaketa Bultzatzeko Zerbitzuak honako jarduerok garatu ditu, bestek beste:

A. Enpleguaren sustapena

- Enplegua sustatzea praktiketako kontratazioaren bidez. Gazteen enplegua

Martxoaren 29ko 71/2011 Foru Dekretua idaztea, enplegua praktiketako kontratazioaren bidez sustatzeko diru-laguntzen emakida arautzen duen deialdia eta oinarriak ezarri dituen.

Dekretu honen xedea lehen lanerako laguntza ematea da, praktiketako kontratua erabilita. Gehienez 30 urte dituzten gazteentzako kontratua da, eta 2011ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra artean gauzaturiko kontratueterako laguntza eman da.

Eskabideak aurkezteko epea 2012ko urtarrilaren 31an amaitzen da. Orain artean, 474 eskabide jaso dira. 2011n esleituriko eskabideen kopurua 1.357.315,5 eurokoa izan zen; 343 eskabide esleitu eta 58 atzera bota ziren.

- Enplegua eta langabetuek eta baztertuak izateko arriskuan dauden enpresak sortzea bultzatzea.

Martxoaren 29ko 70/2011 Foru Dekretua idaztea, enplegua eta langabetuek eta baztertuak izateko arriskuan dauden enpresak sortzea bultzatzeko diru-laguntzen emakida arautzen duten oinarriak ezarri dituen.

Hiru arloetan dago egituratuta Dekretua, honelaxe:

I. atala: Enpresa proiektuak sortzeko eta martxan jartzeko aholkularitza.

En el año 2011 el Servicio de Empleo y Gestión del Conocimiento ha desarrollado, entre otras, las siguientes actividades:

A. Promoción del empleo

- Promoción de la empleabilidad mediante la contratación en prácticas. Empleo juvenil

Redacción del Decreto Foral 71/2011, de 29 de marzo por el que se establecen las bases y convocatoria reguladoras de la concesión de subvenciones para la promoción de la empleabilidad mediante la contratación en prácticas

El objetivo de este Decreto es apoyar el primer empleo, mediante el contrato en prácticas. Este contrato está dirigido a jóvenes hasta 30 años de edad, apoyándose contratos formalizados entre el uno de enero y el treinta y uno de diciembre de 2011.

El plazo de presentación de solicitudes finaliza el 31 de enero de 2012. Hasta la fecha se han recibido 474 solicitudes. La cuantía de las solicitudes adjudicadas en el año 2011, fué de 1.357.315,5 euros euros, habiéndose adjudicado 343 y desistidas o desestimadas 58 solicitudes.

- Fomento del autoempleo y la creación de empresas por personas desempleadas y en riesgo de exclusión

Redacción del Decreto Foral 70/2011, de 29 de marzo, por el que se establecen las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el fomento del autoempleo y la creación de empresas por personas desempleadas y en riesgo de exclusión.

El Decreto se estructura en tres áreas, del siguiente modo:

Area I: Asesoramiento para la creación y puesta en marcha de proyectos empresariales

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapena 08. <i>Promoción Económica</i>	06. Jakintzaren Kudeaketa 06. <i>Gestión del Conocimiento</i>	320.203 Jakintzaren Kudeaketa 320.203 <i>Gestión del conocimiento</i>

I. atalaren xedea da enpresa sustatzaileei proiektuak sortzeko eta martxan jartzeko laguntza ematea, aholkularitzaren eta trebakuntzaren bidez.

Apirilaren 43ko 2746/2011 Foru Aginduaren bidez, I. ataleko I. tituluak dakartzan laguntzen deialdia onetsi zen, 70/2011 Foru Dekretuaren enpresa proiektuak sortzeko eta martxan jartzeko aholkulariaren arloko jarduerak.

Laguntzak, guztira, 751.593,70 eurokoak izan ziren; jasotako 22 eskabideetatik 22ri eman zaie laguntza.

II. atala: Enpresak martxan jartzeko laguntzak enpresaren funtzionamenduko lehen urtean.

II. atal honetan, enpresa martxan jartzeko eta funtzionatzeko hasierako lehen urtean enpresek dituzten gastuei aurre egiteko zuzenean eska ditzaketen laguntzak arautzen dira, betiere entitate horiek I. atalean lagundutako proiektuetatik sortu badira.

2011ko uztailaren 1eko 4308/2011 Foru Aginduaren bidez, martxoaren 29ko 70/2011 Foru Dekretuaren II. ataleko I. tituluak dakartzan laguntzen deialdia onetsi zen.

Eskabideak aurkezteko epea 2011ko abenduaren 30ean bukatu zen. 775 eskabide jaso dira; orain arte 752ri eman zaien laguntza; 15 atzera bota dira edo uko egin zaie. Laguntzen guztizko kopurua 3.295.596 eurokoa da.

III Atala. Enplegua sortzeagatiko laguntzen neurri berezia.

Atal honetan, enplegua sortzeagatiko neurri berezia bildu da, hain zuzen ere gutxienez urtebeteko lan-kontratua egitearen ziozko diru-laguntza, 70/2011 Foru Dekretuaren 12.

Este área I pretende apoyar la creación y puesta en marcha de proyectos empresariales, a través del asesoramiento y la formación, a las personas promotoras.

Mediante Orden Foral 2746 /2011 de 4 de abril de 2011, se aprobó la convocatoria de las ayudas contenidas en el Título 1 Sección 1; actuaciones en materia de asesoramiento para la creación y puesta en marcha de proyectos empresariales del Decreto Foral número 70/2011.

La cuantía total de ayudas ascendió a 751.593,70 euros, habiéndose apoyado 21 solicitudes, de las 22 recibidas

Area II. Ayudas a la puesta en marcha durante el primer año de funcionamiento de las empresas.

Este área II regula las ayudas que directamente las empresas, pueden solicitar para hacer frente a los gastos de puesta en marcha y funcionamiento que han de soportar durante el primer año de funcionamiento, siempre que dichas entidades hayan surgido de los proyectos apoyados en el área I.

Mediante Orden Foral 4308/2011 de 1 de julio de 2011, se aprobó la convocatoria de las ayudas contenidas en el Título I Sección II del Decreto Foral 70/2011, de 29 de marzo.

El plazo de presentación de solicitudes finalizó el 30 de diciembre de 2011. Se han recibido 775 solicitudes, se han apoyado hasta la fecha 572, se han desestimado o han renunciado 15. La cuantía total de las ayudas asciende a 3.295.596 euros.

Area III. Medida especial de ayudas por creación de empleo.

En este área, se recoge una medida especial de ayudas por creación de empleo, consistente en una subvención por la realización de un contrato de trabajo de al menos un año de duración

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapena 08. Promoción Económica	06. Jakintzaren Kudeaketa 06. Gestión del Conocimiento	320.203 Jakintzaren Kudeaketa 320.203 Gestión del conocimiento
artikuluaren zehazturiko erakunde onuradunek eta abuztuaren 2ko 2804/2010 Foru Aginduaren bidez onetsitako deialdian autoenpleguko programaren erakunde esleipendunek eginiko kontratua, 64/2010 den Foral 64/2010 Foru Dekretuaren oinarri arau-emaileen itzalpean. 2011ko uztailaren 20 ko 4660/2011 Foru Aginduaren bidez, martxoaren 29ko 70/2011 Foru Dekretuaren II. tituluak dakartzan laguntzen deialdia onetsi zen. Laguntzen guztizko kopurua 100.000 eurokoa da, eta jasotako 56 eskabideetatik 20 eskabidek jaso dute laguntza. – Langile Autonomoei Laguntza Finantzarioa Emateko Programa LALF. 2011ko martxoaren 29ko 69/2011 Foru Dekretua idaztea, langile autonomoei laguntza finantzarioa emateko programa LALFren diru-laguntzak emateko oinarri arau-emaileak eta deialdia ezarri dituen. Programaren xedea jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoei laguntzea da, finantza erakundeekin jarduera ekonomikoa hobetzeko, handitzeko edo berritzeko izenpeturiko maileguen interesak finantzatzeko aldera. Laguntzen guztizko kopurua 110.373,14 euro da, eta jasotako 188 eskabideetatik 151 eskabidek jaso dute laguntza. – Apirilaren 27ko 62/2010 Foru Dekretuei dagozkien praktiketako kontratazioaren arloko 288 espedienteen jarraipena, ekintzak betetzen direla aztertuz eta eginiko gastuak bidezkoz, 2011ko ekitaldiaren kargura egingo diren urte askoko azken ordainketak izapidetzeko. – Apirilaren 27ko 62/2010 Foru Dekretuaren 1 eta 2. atalei dagozkien autoenpleguaren eta	formalizado por las entidades beneficiarias detalladas en el art.12 del Decreto Foral 70/2011, y las entidades adjudicatarias del programa de autoempleo en la convocatoria aprobada mediante Orden Foral 2804/2010, de 2 de agosto, al amparo de las bases reguladoras del Decreto Foral 64/2010. Mediante Orden Foral 4660/2011 de 20 de julio de 2011, se aprobó la convocatoria de las ayudas contenidas en el Título II del Decreto Foral 70/2011, de 29 de marzo. La cuantía total de ayudas ascendió a 100.000 euros, habiéndose apoyado 20 solicitudes, de las 56 recibidas. – Programa de apoyo financiero a autónomos AFA. Redacción del decreto Foral 69/2011, de 29 de marzo de 2011 por el que se establecen por el que se establecen las bases y convocatoria reguladoras de la concesión de subvenciones del programa de apoyo financiero a autónomos “AFA”. Este programa tiene por objeto ayudar a las personas físicas que ejerzan una actividad económica, con objeto de financiar el interés de los préstamos sucritos con entidades financieras para la mejora, ampliación o renovación de la actividad económica. La cuantía total de ayudas ascendió a 110.373,14 euros, habiéndose apoyado 151 solicitudes, de las 188 recibidas. – Seguimiento de los 288 expedientes correspondientes al los Decreto Foral 62/2010, de 27 de abril en materia de contratación en prácticas, mediante el análisis del cumplimiento de las acciones y justificación de los gastos realizados, para la tramitación de los pagos finales de carácter plurianual, a realizar con cargo al ejercicio 2011. – Seguimiento de los 14 y 554 expedientes correspondientes a las secciones 1 y 2	

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapena 08. Promoción Económica	06. Jakintzaren Kudeaketa 06. Gestión del Conocimiento	320.203 Jakintzaren Kudeaketa 320.203 Gestión del conocimiento

enpresen sorkuntzaren arloko 14 eta 55 espedienteen jarraipena, ekintzak betetzen direla aztertuz eta eginiko gastuak bidezkotuz, 2011ko ekitaldiaren kargura egingo diren urte askoko azken ordainketak izapidetzeko.

respectivamente del Decreto Foral 64/2010 en materia fomento del autoempleo y la creación de empresas, mediante el análisis del cumplimiento de las acciones y justificación de los gastos realizados, para la tramitación de los pagos finales de carácter plurianual, a realizar con cargo al ejercicio 2011.

B. Jakintzaren kudeaketa

- Nazioarteko zentro ospetsuetako graduatu ondokoak egin dituzten gazteen lanbide hobekuntza. Gazteak bikaintasunean trebatzea sustatzea.

Martxoaren 29ko 72/2011 Foru Dekretua idaztea, bikaintasunaren arloko diru-laguntzen emakidaren deialdia eta oinarriak ezarri dituen graduatu ondoko ikasketak egin dituzten gazteen lanbide hobekuntzarako.

Bizkaian jaio edo erroldaturik dauden gazteentzat da, baina 2009-2010 edo 2010-2011 ikasturtean unibertsitateko goi mailako ikasketak egindakoak izan behar dute, baita batez besteko azken nota oso ondokoa edo hobeaz izatea ere (7koa 0-10eko eskalan). Unibertsitateko goi mailako titularen jabe edo lizentziatu, ingeniari edo arkitektoaren titulua eskatuta izan behar dute. Diru-laguntza, gehienez, 10.000 eurokoa da pertsonako, matrikula, leku-aldaketa, aseguru medikoa eta egonaldiaren gastuak finantzatzeko.

18 eskabide jaso dira, eta horietatik 9 sustengatu dira; guztizko gastua 89.837 euro da. Graduatu ondoko ikastaroen helmugako herrialdeak Erresuma Batua, Frantzia eta AEB dira.

Halaber, graduatu ondoko ikastaroak 2010ean hasi zituzten eta apirilaren 27ko 63/2010 Foru Dekretuaren laguntzen onuradunak izan ziren 7 pertsonen laguntzarekin eta jarraipenarekin jarraitu da.

B. Gestión del conocimiento

- Perfeccionamiento profesional de jóvenes posgraduados y posgraduadas en Centros internacionales de prestigio. Fomento de la formación de excelencia de jóvenes.

Redacción del Decreto Foral 72/2011 de 29 de marzo por el que se establecen las bases y convocatoria reguladoras de la concesión de subvenciones en materia de excelencia para el perfeccionamiento profesional de jóvenes posgraduados y posgraduadas.

Está dirigido a las personas jóvenes, nacidas o empadronadas en Bizkaia, que habiendo finalizado los estudios superiores universitarios en el curso académico 2009-2010 o 2010-2011 tengan una nota media final igual o superior a notable (7 en la escala de 0 a 10), estén en posesión de titulación superior universitaria o tengan solicitado el correspondiente título de licenciado/a, ingeniero/a o arquitecto/a. La ayuda económica asciende a un máximo de 10.000 euros por persona para financiar los gastos de matrícula, traslado, seguro médico y estancia.

Se han recibido 18 solicitudes, de las cuales se han apoyado 9, con gasto total de 89.837 euros. Los países destino de los cursos de posgrado son Reino Unido, Francia y Estados Unidos.

Así mismo se ha continuado con el apoyo y seguimiento a las 7 personas que comenzaron en 2010 los cursos de posgrado y que fueron beneficiarias de las ayudas del Decreto Foral 63/2010 de 27 de abril

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapena 08. Promoción Económica	06. Jakintzaren Kudeaketa 06. Gestión del Conocimiento	320.203 Jakintzaren Kudeaketa 320.203 Gestión del conocimiento
– Gazteen lanbide hobekuntza Bizkaiko unibertsitateetan. Ekonomi Sustapen Sailak, hainbat jarduketa-ildoren bidez, giza baliabideak merkatuaren eskakizun berrietara egokitu nahi ditu trebakuntzaren bidez. Hartara, jarduera independenteak sortzea ahalbidetu eta lanpostuak mantentzeko eta sortzeko laguntza emango du. ❖ Ildo horretan, Euskal Herriko Unibertsitateak emandako unibertsitate master hauek indartu dira 2011an: ❖ Unibertsitateko Moda-diseinuaren espezialista titulua. ❖ Enpresa Kudeaketa Masterra, Enpresan Aplikaturiko Ekonomia Erakundearekin. ❖ Marketin Masterra, Enpresan Aplikaturiko Ekonomia Erakundearekin. ❖ Lehiakortasunerako Kudeaketa Masterra, Bilboko Goi Mailako Ingeniaritza Eskola Teknikoak emana. ❖ Giza Baliabide eta Enplegua Kudeatzeko Unibertsitate Masterra, Harremanen Unibertsitate Eskolak emana. ❖ Nazioarteko Negozio / Global Business Masterra. – Lanbide Heziketa edo unibertsitate ikasketak bukatzen dituzten gazteen enplegu eta lanbide hobekuntza. ❖ Helburu horrekin, hitzarmena izenpetu zen Confesbask eta Ikaslan Bizkaiarekin, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasketak Leonardo da Vinci eta Erasmus	– Perfeccionamiento profesional de jóvenes en Centros universitarios de Bizkaia: El Departamento de Promoción Económica pretende a través de sus diferentes líneas de actuación, facilitar, por medio de la formación, la adaptación de los recursos humanos a las nuevas exigencias del mercado, posibilitando la creación de actividades independientes y contribuyendo al mantenimiento y creación de puestos de trabajo ❖ En este sentido durante 2011 se han potenciado los siguientes masters universitarios impartidos por la Universidad del País Vasco. ❖ Título de Especialista de Universidad en Diseño de Moda ❖ Master en Gestión de Empresa con el Instituto de Economía Aplicada a la Empresa ❖ Master en Marketing con el Instituto de Economía Aplicada a la Empresa ❖ Master en Gestión para la Competitividad impartido por la Escuela Técnica Superior de Ingeniería de Bilbao ❖ Master Universitario en Gestión de Recursos Humanos y del Empleo impartido por Escuela Universitaria de Relaciones Laborales ❖ Master en Negocios Internacionales / Global Business – Perfeccionamiento profesional y mejora de la empleabilidad de las personas jóvenes que finalizan los estudios de Formación Profesional o Universitarios. ❖ Con este objetivo se suscribió un convenio con Confesbask e Ikaslan Bizkaia para que 198 estudiantes que finalizan sus estudios de Formación Profesional y Universitaria al	

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapena 08. <i>Promoción Económica</i>	06. Jakintzaren Kudeaketa 06. <i>Gestión del Conocimiento</i>	320.203 Jakintzaren Kudeaketa 320.203 <i>Gestión del conocimiento</i>

programen itzalpean bukatzen dituzten 198 ikaslek nazioarteko dimentsioa gara dezaten eta, aldi berean, Europar Batasuneko herrialdeetako enpresa kulturaren eta hizkuntzen gaineko jakintza eskura dezaten.

- ❖ Novia Salcedo Fundazioaren bitartez, laguntza eman zaie Bizkaiko gazteen laneratzea eta profesionalizazioa sustatzen dituzten ekintzei, enpresa eredu berrietarako lanbide gaitasun berriak eskuratzea bultzatuz.
- ❖ Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniaritzako Goi Mailako Eskola Teknikoa Formula Student Proiektuan duen partaidetza kudeatzeko ardura duen EUSKOIKER Fundazioarekin; Europako beste unibertsitate batzuekin lehian aritzeko diseinu eta fabrikaziorako proiektua da hori.

C. Bizkaiko eragileei laguntzea enpleguaren eta jakintzaren kudeaketaren eremuan

- ❖ DEMA Enpresa Garapenari laguntzea, enplegua hobetzeko eta Bizkaiko enpresen sorrera eta finkapena errazten duten ekintzak batera kudeatzeko.
- ❖ Bizkaia Xederi, berrikuntza eta jakintzaren prozesuan gaitasuna duten pertsonak erakartzeko eta atxikitze beharrezko baldintzak Bizkaian ezartzea errazteko. Hala, azpiegitura materiala eta giza azpiegitura emango zaio Bizkaia.
- ❖ Euskal Herriko Unibertsitateari eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi Sustapen Sailari, EHUren famili enpresako katedra garatzeko eta mantentzeko.

amparo del Programa Leonardo da Vinci y del Programa Erasmus desarrollen su dimensión internacional a la vez que obtienen unos conocimientos de idiomas y una formación en las culturas empresariales de los países de la Unión Europea.

- ❖ A través de la Fundación Fundación Novia Salcedo se han apoyado acciones que promueven la profesionalización e incorporación al mundo laboral de las personas jóvenes de Bizkaia, impulsando la adquisición de nuevas competencias profesionales para nuevos modelos de empresa.
- ❖ Con la Fundación EUSKOIKER, encargada de gestionar la participación de la Escuela Técnica Superior de Ingeniería de Bilbao de la Universidad del País Vasco, en el Proyecto Formula Student para el diseño y fabricación de un vehículo de carreras para competir con otras universidades europeas.

C. Colaboración con agentes de Bizkaia en el ámbito del empleo y la gestión del conocimiento

- ❖ Colaboración con DEMA Enpresa Garapena para la gestión conjunta de acciones que mejoren la empleabilidad y faciliten la creación y consolidación de empresas en Bizkaia.
- ❖ Con Bizkaia Xede para favorecer el establecimiento en Bizkaia de las condiciones necesarias para atraer y retener a personas cualificadas en el proceso de innovación y conocimiento para, de esta forma, dotar a Bizkaia de una infraestructura material y humana.
- ❖ Con la Universidad del País Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia, Departamento de Promoción Económica para el desarrollo y sostenimiento de la cátedra de empresa familiar de la UPV/EHU

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapena 08. Promoción Económica	06. Jakintzaren Kudeaketa 06. Gestión del Conocimiento	320.203 Jakintzaren Kudeaketa 320.203 Gestión del conocimiento
❖ Behargintzako zentroei laguntzea (Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroak), BBK Gazte Lanbidean Fundazioak, Eudelek (Euskadiko Udalerrien Elkarteak) eta Bizkaiko Foru Aldundiak izenpeturiko lankidetzahitzarmena betearazteko. ❖ Cebek-i, honako ekintza hauek burutzeko: orientazioa, koordinazioa; trebakuntza iraunkorra erraztea; lidergoari buruzko trebakuntza; salmenta trebakuntza; LHko ikasleentzako enpresa intereseko balioen gaineko sentsibilizazioa; unibertsitate eta lanbide heziketako titulua duten gazteentzako praktikak. ❖ Deustuko Unibertsitateari, BizkaiLab proiektua abiarazteko eta garatzeko. Bizkaiko Lurralde Historikoko lehentasunezko intereseko eremuetan gizarte berrikuntza, jakintza eta garapen guinea sortzeko ekimena da. ❖ Euskadiko Profesionalen eta Langile Autonomoen Batasunari (UPTA), autonomoei aholkuak, orientazioa, trebakuntza eta laguntza lanetarako. ❖ Baita Ostalaritzako Enpresaburuen Elkarteari, Espainiako Enpresaburuen eta Zuzendarien Konfederazioarekin eta Down-en Sindromearen Fundazioarekin, besteak beste, lanbide trebakuntzarako eta enplegua sustatzeko proiektuak burutzeko.	❖ Colaboración con los Centros de Empleo y Desarrollo Local Behargintza, en ejecución del convenio de colaboración suscrito entre BBK Gazte Lanbidean Fundazioa, Eudel Asociación de Municipios Vascos y Diputación Foral de Bizkaia. ❖ Con Cebek para la ejecución de acciones de Orientación, Coordinación, y Facilitación de la Formación Continua; Formación en Liderazgo; en Ventas; Sensibilización en valores de interés empresarial a estudiantes de FP; y prácticas de personas jóvenes tituladas universitarias y de formación profesional. ❖ Con la Universidad de Deusto para la puesta en marcha y desarrollo del proyecto BizkaiLab, iniciativa para generar un polo de conocimiento, desarrollo e innovación social en los ámbitos de interés preferencial para el Territorio Histórico de Bizkaia ❖ Con la Unión de Profesionales y Trabajadores Autónomos de Euskadi UPTA para las labores de asesoramiento, orientación, formación y apoyo a autónomos ❖ Así como con la Asociación de Empresarios de Hostelería, la Confederación española de empresarios y ejecutivos y la Fundación Síndrome de Down, entre otros, para la ejecución de proyectos capacitación profesional y fomento de la empleabilidad.	

Gastuen Egitaraueen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Saila: 08 EKONOMI SUSTAPENA
Departamento: PROMOCION ECONOMICA
Egitaraua: 320203 JAKINTZAREN KUDEAKETA
Programa: GESTION DEL CONOCIMIENTO

HEL OBJ	EKI ACC	ADI IND	DESKRIPZIOA DESCRIPCIÓN	ZENBATEKOA/CUANTIFICACION		EGITEA REALIZACIONES
				HASIERA/INICIAL	ORAIN/ACTUAL	
1			LANGABEZIAN ETA BAZTERKERIA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN AUTOENPLEGUA ETA ENPRESEN SORKUNTZA SUSTATZEA FOMENTAR EL AUTOEMPLEO Y LA CREACIÓN DE EMPRESAS POR PERSONAS DESEMPLEADAS Y EN RIESGO DE EXCLUSIÓN			
	1		AHOLKULARITZA ENPRESA-PROIEKTUAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO ASESORAMIENTO PARA LA CREACIÓN Y PUESTA EN MARCHA DE PROYECTOS EMPRESARIALES			
		1	Aholkularitza izan duen enpresa-proiektu kopurua Número de proyectos empresariales asesorados	350	350	775
	2		ENPRESAK SORTZEA CREACIÓN DE EMPRESAS			
		1	Enpresa kopurua Número de empresas	300	575	775
2			ARAUTUTAKO PRESTAKUNTZA AMAITZEN DUTEN PERTSONEN ENPLEGAGARRITASUNA HOBETU MEJORAR LA EMPLEABILIDAD DE LAS PERSONAS QUE FINALIZAN LA FORMACIÓN REGLADA			
	1		ATZERRIKO ENPRESETAN PRAKTIKAK, PRESTAKUNTZAREKIN TXANDAKATUTA PRACTICAS EN EMPRESAS DEL EXTRANJERO ALTERNADAS CON FORMACION			
		1	Eragile kopurua Nº de operadores	2	2	2
		2	Partehartzaile kopurua Nº de participantes	170	170	198
3			ENPRESEI PRESTAKUNTZADUN PROFESIONALAK ESKAINI, EUREN BEHARRIZANEN ARABERA SUMINISTRAR A LAS EMPRESAS PROFESIONALES FORMADOS SEGÚN SUS NECESIDADES			
	1		GRADUONDOKO IKASTAROAK ETA MASTERRAK EGIN REALIZACION DE CURSOS DE POSTGRADO Y MASTERS			
		1	Ikastaro kopurua Nº de cursos	5	7	7
		2	Partehartzaile kopurua Nº de participantes	135	135	135
	2		NAZIOARTEKO ZENTROETAN HOBETUNTZA PROFESIONALERAKO IKASTAROAK EGITEA REALIZACIÓN DE CURSOS DE PERFECCIONAMIENTO PROFESIONAL EN CENTROS INTERNACIONALES			
		1	Parte-hartzaile kopurua Nº de participantes	100	100	16
4			GAZTEEN LANERATZEA SUSTATU PROMOVER LA INSERCIÓN LABORAL DE LOS JÓVENES			
	1		GAZTEEN KONTRATAZIOA CONTRATACION DE JOVENES			

Gastuen Egitaraueen Ebaluaketa (Helburuak) Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Saila: 08 EKONOMI SUSTAPENA
Departamento: PROMOCION ECONOMICA
Egitaraua: 320203 JAKINTZAREN KUDEAKETA
Programa: GESTION DEL CONOCIMIENTO

HEL OBJ	EKI ACC	ADI IND	DESKRIPZIOA DESCRIPCIÓN	ZENBATEKOA/CUANTIFICACION		EGITEA REALIZACIONES
				HASIERA/INICIAL	ORAIN/ACTUAL	
5		1	Eragindako kontratu kopurua Nº de contratos afectados	1.000	850	474
			XEDE BEZALA LANERATZEA ETA ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA DUTEN PROIEKTUAK BURUTZEN LAGUNTZA EMAN COLABORAR EN LA EJECUCIÓN DE PROYECTOS QUE TENGAN POR OBJETO LA INSERCIÓN LABORAL Y LA MEJORA DE LA CALIDAD EN EL EMPLEO			
6	1		BEHARGINTZA, ENPLEGU ETA TOKIKO GARAPENERAKO ZENTROEKIN LANKIDETZA COLABORACIÓN CON LOS CENTROS DE EMPLEO Y DESARROLLO LOCAL BEHARGINTZA			
		1	Zentro kopurua Nº de centros	21	21	21
			EZAGUTZA FOKO BAT SORTZEA BIZKAIKO GARAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALERAKO LEHENTASUNEZKOAK DIREN ARLOETAN GENERAR UN POLO DE CONOCIMIENTO EN AMBITOS DE INTERES PREFERENCIAL PARA EL DESARROLLO ECONOMICO Y SOCIAL DE BIZKAIA			
	1		BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN ELKARLANEAN ARITZEA, OINARRIZKO IKERKETAREN ETA IKERKETA APLIKATUAREN BIDEZ EZAGUTZA TRANSMITITZEKO PROIEKTUETAN COLABORACION CON ENTIDADES PARA LA EJECUCION DE PROYECTOS DE INVESTIGACION BASICA Y APLICADA CON TRANSFERENCIA DEL CONOCIMIENTO AL TERRIT. DE BIZKAIA.			
		1	Erakunde kopurua Número de entidades		1	1

ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACION GENERAL

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapen	03. Enpresa Sustapena	720.103 Enpresa Sustapena
08. Promoción Económica	03. Promoción Empresarial	720.103 Promoción Empresarial

Ekonomi Sustapen Sailak lehiakortasuna berrikuntzaren bidez bultzatzeko helburua du, besteak beste, betiere Bizkaiko enpresa-multzoaren barruan, honelaxe:

- Ekintzailtza eta enpresa espirotuaren sustapenean eragina ona duten jarduketak egitea, gizarte, kultura, ekonomia eta jakintzaren testuinguruan jardunda. Hartara, enpresa berrien bideragarritasunerako igurikapenak handituko dira.
- Enpresa berriak eremu akademikoan eta teknologikoan sortzearen aldeko sentsibilizazioa. Proiektu berritzaileen garapena eta ezarpena bultzatuz Bizkaiko enpresetan, produktuaren eremuan.
- Ekintzaileek informazioa eta enpresa berria abiaraztearekin lotutako laguntzak eskuratzeko modua erraztea, enpresa abiarazteko laguntzei eta beharrezko laguntasunari buruzko informazio osoa bideratuz.
- Berrikuntza eta zientzia sistemako eragileekiko lankidetzaren sustatzea ideia berrien eta enpresa berri bideratzearen proiektuen eragileak diren aldetik.

Helburuok lortzeko, Lehiakortasuna Hobetzeko Plana abiarazi du Ekonomi Sustapen Sailak 2011n, lehiakortasuna Bizkaiko enpresa-multzoaren barruko berrikuntzaren bidez sustatzeko.

Horretarako, Sail horri atxikiriko BEAZ, S.A.U. foru sozietatea publikoaren laguntza izan da; Lehiakortasuna Hobetzeko Planaren barruan dihardu erakunde kolaboratzaile gisa.

El Departamento de Promoción Económica tiene entre sus objetivos impulsar la competitividad a través de la innovación dentro del tejido empresarial de Bizkaia, de la siguiente manera:

- Desarrollar actuaciones que incidan positivamente en el fomento del emprendizaje y del espíritu empresarial actuando sobre el contexto social, cultural, económico y de conocimiento. Incrementando las expectativas de viabilidad de las nuevas empresas.
- Sensibilización favorable a la creación de nuevas empresas en el ámbito académico y en el tecnológico. Apoyando el desarrollo e implantación de proyectos innovadores dentro de las empresas de Bizkaia, en el ámbito de producto.
- Facilitar el acceso de las personas emprendedoras a la información y las ayudas relacionadas con la puesta en marcha de una nueva empresa, canalizando toda la información sobre ayudas, apoyo y acompañamiento necesario para la puesta en marcha de una empresa.
- Fomentar la colaboración con los diferentes agentes del sistema de innovación y ciencia como elemento motor de nuevas ideas y proyectos susceptibles de convertirse en nuevas empresas.

Para la consecución de dichos objetivos, el Departamento de Promoción Económica ha puesto en marcha en el año 2011, el Plan de Mejora de la Competitividad, con el fin de fomentar la competitividad a través de la innovación dentro del tejido empresarial de Bizkaia.

Para todo ello se cuenta con la ayuda la sociedad pública foral BEAZ, S.A.U adscrita al mismo, que intervienen dentro del Plan de Mejora de la Competitividad como entidad colaboradora.

ADMINISTRATIO OROKORRA
ADMINISTRACION GENERAL

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapen 08. <i>Promoción Económica</i>	03. Enpresa Sustapena 03. <i>Promoción Empresarial</i>	720.103 Enpresa Sustapena 720.103 <i>Promoción Empresarial</i>

Lehiakortasuna Hobetzeko Plana 2011ko martxoaren 15eko 56/2011 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen, eta 3 jarduketa-arlo garatzen ditu:

1. Enpresa berritzaileen planak garatzeko finantzaziorako diru-laguntza itzulezinak, enpresa proiektu berritzaileen garapenari buruzko 1. Atalaren bidez.
2. Diru-laguntza itzulezinak eta partaidetza-maileguak sortu berri diren enpresa berritzaileei, 2. Atalaren bidez: Enpresa Berritzaile Berriak.
3. Enpresetan proiektu berritzaileen garapena eta ezarpena bultzatzeko diru-laguntza itzulezinak, 3. Atalaren bidez: Lehiakortasuna Hobetzeko Proiektuak.

Halaber, enpresa berriek honako hauek eskura ditzakete:

- a) BIZKAIKO SEED KAPITALA sozietate publikoak (Arrisku-kapitalen Fondoak Kudeatzeko Erakundea, S.A.) eskainitako laguntza, enpresa horrek ezarritako baldintzetan.
- b) Barakaldoko CEDEMIko (Ezkerraldeko Enpresak Garatzeko Zentroa, S.A.) moduluak alokatzeko egitarauan ezarritako etekinak, enpresa horrek ezarritako baldintzetan.

Enpresen proiektu berritzaileak sustatzeko helburu hauek, honako proiektu eta enpresa berritzaileei laguntza ematean gauzatu dira:

1. Atalean – Enpresa proiektu berritzaileen garapena:

Atal honek enpresa proiektu berritzaile berrien enpresa planak garatzeko diru-laguntzak eskaintzen ditu.

El Plan de Mejora de la Competitividad se aprobó mediante Decreto Foral 56/2011 de 15 de marzo de 2011 y desarrolla 3 áreas de actuación:

1. Subvenciones no reintegrables para la financiación del desarrollo de planes de empresa innovadoras a través del Area 1: Desarrollo de Proyectos Empresariales innovadores.
2. Subvenciones no reintegrables y préstamos participativos a empresas innovadoras de nueva creación a través de la Area 2: Nuevas Empresas Innovadoras.
3. Subvenciones no reintegrables para apoyar el desarrollo y la implantación de proyectos innovadores en las empresas a través del Area 3: Proyectos de Mejora de la Competitividad

Asimismo las nuevas empresas pueden acceder a:

- a) Los apoyos ofrecidos por la sociedad pública SEED CAPITAL DE BIZKAIA, Entidad Gestora de Fondos de Capital Riesgo, S.A., en las condiciones establecidas por esta empresa.
- b) Los beneficios contemplados en el programa de alquiler de módulos del centro de empresas de Barakaldo de CEDEMI, Centro de Desarrollo Empresarial Margen Izquierda-Ezkerraldea Enpresak Garatzeko Zentroa, S.A. en las condiciones establecidas por esta empresa.

Estos objetivos de promoción de proyectos empresariales innovadores se han traducido en el apoyo a los siguientes proyectos y empresas innovadoras:

En el Area 1- Desarrollo de Proyectos Empresariales innovadores:

Esta área ofrece subvenciones para el desarrollo de los planes de empresa de los nuevos proyectos empresariales innovadores.

ADMINISTRATIO OROKORRA
ADMINISTRACION GENERAL

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapen	03. Enpresa Sustapena	720.103 Enpresa Sustapena
08. Promoción Económica	03. Promoción Empresarial	720.103 Promoción Empresarial

BEAZ, S.A.U. foru sozietate publikoak aholkuak ematen dizkie lagundutako sustatzaileei, enpresa proiektuak aztertzeo eta abiarazteko fasean, honako hauexetarako:

- Enpresa plana egiteko.
- Teknologia transferitzeko, teknologia zentroekin eta unibertsitateekin lankidetzak akordioen bidez.
- Finantzazioa bilatzeko.
- Trebakuntza beharrak aztertzeo.
- Proiektua sustatzen duten pertsonen edo erakundeen laguntza ematen dieten profesional independenteak bilatzeko.
- Eta enpresa berriaren kokapena errazteko.

2011ko ekitaldian, Lehiakortasuna Hobetzeko Plana 2000ko 64 proiektu sustatuko dira; laguntzen zenbatekoa, guztira, 757.700€ da.

2011n, 134 eskabide aurkeztu zaizkio Enpresa proiektu berritzaileen garapenari buruzko 1. Atalean; horietatik 82 sustengatu dira.

Guztizko diru-laguntza 1.206.100 € da; 348.100 € 2011ko ekitaldikoak, eta 858.000 € 2012ko ekitaldikoak.

1. atalean sustengatutako proiektuen kopurua: Enpresa proiektu berritzaileen garapena: 2010eko baino %7,9 handiagoa izan da (2010ean 76 proiektu sustengatu ziren; 2011n, berriz, 82).

Jarduera honetarako izango dira proiektu berriak: "Energia, ingurumena eta eraikuntza iraunkorra" eta "Negocio puntocom/web 2.0", guztira %20,73arekin. Bestalde, hauek nabarmendu daitezke: "Beste industria batzuk eta zerbitzu teknikoak enpresei", "Informatika eta telekomunikazioak" eta "Osasuna, elektromedikuntza eta zerbitzu medikoak", %9,76.

La sociedad pública foral BEAZ, S.A.U. presta asesoramiento a las personas promotoras apoyadas, en la fase de estudio y puesta en marcha de los proyectos empresariales para:

- la elaboración del plan de empresa,
- transferencia de tecnología, mediante acuerdos de colaboración con centros tecnológicos y universidades,
- búsqueda de financiación,
- análisis de necesidades de formación,
- búsqueda de profesionales independientes que colaboren con la personas o entidades promotoras del proyecto,
- y facilitar la ubicación de nueva empresa.

Durante el ejercicio 2011 se han apoyado 64 proyectos provenientes del Plan de Mejora de la Competitividad 2010, con un importe de ayudas de 757.700€.

Durante 2011 se han presentado al Area 1- Desarrollo de Proyectos empresariales innovadores, 134 solicitudes, de las que se apoyaron 82.

La subvención total asciende a 1.206.100 €, 348.100 € correspondientes al ejercicio 2011 y 858.000 € al ejercicio 2012.

El número de proyectos apoyados en el Area 1 -: Desarrollo de Proyectos empresariales innovadores, ha sido un 7,9% mayor al del 2010, (76 proyectos apoyados en el 2010 frente a 82 en el 2011).

La actividad a la que se dirigen los nuevos proyectos ha sido "Energía, medioambiente y construcción sostenible" y "Negocio puntocom/web 2.0" con un 20,73%. Por otra parte caben destacar, "Otras Industrias y servicios técnicos a empresas", "Informática y telecomunicaciones" y "Sanidad, electromedicina y servicios médicos" con un 9,76%.

ADMINISTRATIO OROKORRA
ADMINISTRACION GENERAL

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapen 08. <i>Promoción Económica</i>	03. Enpresa Sustapena 03. <i>Promoción Empresarial</i>	720.103 Enpresa Sustapena 720.103 <i>Promoción Empresarial</i>

Ekintzaile programen eta enpresa proiektu berritzaileen garapenari buruzko 1. atalekoen eskabideak SPRIrekin batera koordinatzeko eta ebaluatzeke lana areagotzearekin jarraitu da.

Ebaluazio irizpideak koordinatu eta baterako finantzaketa eman da bi programetan sartu diren 41 proiektu; SPRIk 671.100 € eman dizkie proiektu horiei.

2. atalean: Enpresa berritzaile berriak:

- Guztira 82 eskabide jaso dira, eta horietatik 66 sustengatu dira. Diru-laguntza, guztira, 891.000 € da.
- % 8,3 egin du behera enpresa berritzaile berriak 2011 izeneko 2. atalean sustengaturiko enpresen kopuruak atal horretan 2010ean jasotako emaitzen aldean (2010ean 72 enpresa; 2011n, berriz, 66).
- Hauxe izan da Enpresa berri berritzaileen 2. atalean sustengatutako enpresen jardura: "Energia, ingurumena eta eraikuntza iraunkorra" %25,76, eta "Negocio puntocom/Web 2.0", %22,73. Nabarmenezkoak dira ere "Metalezko transformatuak, tresna eta makineria" eta "Informatika eta telekomunikazioak", guztira % 7,58arekin.
- 2011n ez zaie eman sortu berri diren enpresa berritzaileei partaidetza mailegurik.

3. atalean – Lehiakortasuna hobetzeko proiektuak:

Atal honetan, lehiakortasun hobetzeko proiektuetarako diru-laguntzak ematen dira, helburu hauekin:

- Bizkaiko enpresen lehiakortasuna hobetzea, berrikuntzarako gaitasuna sustatuz.

Se ha continuado incrementando la coordinación y evaluación conjunta de solicitudes de los programas Ekintzaile y el Area 1: Desarrollo de Proyectos Empresariales innovadores con la SPRI.

Se han coordinado los criterios de evaluación y cofinanciado 41 proyectos que se han acogido a ambos programas, habiendo recibido estos proyectos 671.100 € por parte de la SPRI.

En el Area 2: Nuevas Empresas innovadoras:

- Se han recibido un total de 82 solicitudes de las que 66 han sido apoyadas. La subvención total asciende a 891.000 €.
- Se ha producido una disminución del 8,3% en el número de empresas apoyadas en la Area 2: Nuevas empresas innovadoras 2011 con respecto a los resultados obtenidos en la misma en 2010, (72 empresas en 2010 frente a 66 en 2011).
- La actividad de las empresas apoyadas en el Area 2: Nuevas Empresas innovadoras, ha sido: "Energía, medioambiente y construcción sostenible" con un 25,76% y "Negocio puntocom/Web 2.0" con un 22,73 %. Caben destacar también, "Transformados metálicos, herramienta y maquinaria" e "Informática y telecomunicaciones" con un 7,58%.
- Durante el año 2011 no se concedió ningún préstamo participativo a empresas innovadoras de nueva creación.

En el Area 3 – Proyectos de mejora de la competitividad:

En este área, se subvencionan proyectos de mejora de la competitividad con objeto de:

- Incrementar la competitividad de las empresas de Bizkaia fomentando su capacidad innovadora.

ADMINISTRATIO OROKORRA
ADMINISTRACION GENERAL

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapen	03. Enpresa Sustapena	720.103 Enpresa Sustapena
08. Promoción Económica	03. Promoción Empresarial	720.103 Promoción Empresarial

- Enpresetan proiektu berritzaileen garapena eta ezarpena sustengatzea.
- Bizkaiko berrikuntza sistemaren funtzionamendua dinamizatzea.

Zehazkiago, atal honek lehiakortasuna hobetzeko proiektuak sustengatu ditu berrikuntzaren bidez, merkatuan produktu berriak sartzera edo egungoak hobetzera bideratuta.

2011n, 142 eskabide aurkeztu dira atal honetan, eta horien 63 proiektu sustengatu dira. Guztira, 1.566.599 € eman dira 2011n eta 2012an egin beharreko jardueretarako.

Honelakoa izan da banaketa proiektuek iraun duten bi urtean: 812.087 € 2011. urtean eta 754.512 euro 2012an.

Atal honetan %52ko jaitsiera izan da eskabideen kopuruan, aurreko urteko Lehiakortasuna Hobetzeko Planaren antzeko atalaren aldean: 277 eskabidea 2010ean eta 2011n, berriz, 142. Halaxe gertatu da 2011n soilik diru-laguntza jaso dezaketen produktuen atala hartu delako aintzat.

Planak 2011n ezarritako murrizketa hori gorabehera, egonkor eutsi diote azken hiru urtean sustengaturiko eskabideen ratioek aurkezturikoen aldean - %45,41 2009an ; %47,65 2010ean eta %44,37 2011n – eta diru-laguntza jaso dezakeenarekiko emandako batez besteko diru-laguntzaren ehunekoak - %31,53 2009an; %29,93 2010ean eta %29,95 2011n-.

Sustengaturiko proiektuengatik jasotako batez besteko diru-laguntzak ere jaitsiera izan du azken hiru urtean, baina ez nabarmen. 26.428€ 2009an; 27.154€ 2010ean eta 24.867€ 2011n.

Sustengaturiko proiektuak dituzten enpresen jarduerari dagokionez, dibisio hauek nabarmentzen dira: “Arkitektura eta ingeniarietza zerbitzu teknikoak, entsegu eta analisi teknikoak” %28,6; “Makineriaren eta n.c.o.p. ekipoaren fabrikazioa” eta “Ikerkuntza

- Apoyar el desarrollo y la implantación de proyectos innovadores en las mismas.

- Dinamizar el funcionamiento del sistema de innovación de Bizkaia.

En concreto, este área ha apoyado proyectos que mejoran la competitividad a través de la innovación encaminada a incorporar al mercado nuevos productos o mejorar los ya existentes.

Durante el año 2011 se han presentado a este área 142 solicitudes, de las que se han apoyado 63 proyectos, con un importe de 1.566.599 € para actividades a realizar en 2011 y 2012.

La adjudicación distribuida en los dos años de duración de los proyectos ha resultado de 812.087 € en el 2011 y 754.512 e en 2012.

Este área con respecto al área análoga del Plan de Mejora de la Competitividad del año anterior ha registrado un descenso del 52% en el número de solicitudes - 277 en 2010 y 142 en 2011 -. Esto se debe a la contemplación en 2011 únicamente del área de producto para los proyectos subvencionables.

A pesar de esta restricción establecida por el Plan en 2011, los ratios de solicitudes apoyadas con respecto a las presentadas - 45,41% en 2009 ; 47,65% en 2010 y 44,37% en 2011 - y porcentaje de subvención media otorgada respecto al subvencionable - 31,53% en 2009 ; 29,93% en 2010 y 29,95% en 2011- se mantienen estables en un rango a lo largo de los tres últimos años.

La subvención media recibida por los proyectos apoyados también ha descendido ligeramente, pero no de forma notable, en los tres últimos años: 26.428€ en 2009 ; 27.154€ en 2010 y 24.867€ en 2011.

En cuanto a la actividad de las empresas con proyectos apoyados destacan las divisiones de “Servicios técnicos de arquitectura e ingeniería, ensayos y análisis técnicos” con un 28,6% ; “Fabricación de maquinaria y equipo n.c.o.p.” e

ADMINISTRATIO OROKORRA
ADMINISTRACION GENERAL

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomi Sustapen 08. Promoción Económica	03. Enpresa Sustapena 03. Promoción Empresarial	720.103 Enpresa Sustapena 720.103 Promoción Empresarial

eta garapena", %12,7 bakoitza eta "Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioa" eta "Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta ekipoa izan ezik" %9,5 bakoitza.

Laguntzak

Enpresak Sustatzeko Zerbitzua lanean egon da 2010an sortzen diren enpresa berritzaile berri gehiago egon daitezen, eta enpresen proiektu berriei balio erantsi handiagoko zerbitzuak eskaintzeko. Horretarako, zenbait hitzarmen eta laguntza garatu dira unibertsitateekin, teknologia zentroekin eta enpresa taldeekin. Honako hauek dira:

1. Diru-laguntza eman da Eusko Ikaskuntzarekin REM proiektuaren (Regional Entrepreneurship Monitor) zati bat finantzatzeko.

Nazioarte mailan egiten den azterlana da REM, eta ikaskuntzaren oinarritzko aldagaiak neurtzen ditu hainbat herrialdetan eta erregiotan.

Hortaz, politikak jarraitzeko modua ematen du eta horiek hobetzeko informazioa eskaintzen du.

Ekarpena: 24.000,00 €

2. Laguntza AZARO FUNDAZIOAri Lea-Artibai eskualdearen biziberritze ekonomikorako.

